



## LEHIAKETAKO OINARRIAK

### PARTE-HARTZEA

- Edozein nazionalitateko pertsona fisiko edo juridikok du lehiaketan parte-hartzeko aukera, betiere, 18 eta 35 urte (biak barne) bitarteko adina baldin badu lehiaketak irauten duen epean.
- Parte-hartzaile bakoitzak lehiaketara aurkez ditzakeen film laburren kopurua mugagabea da.
- Talde parte-hartzaileek gehienez ere 6 kide izango dituzte.
- Lehiaketan parte hartzeko ezinbestekoa izango da [kameratoia.eus](http://kameratoia.eus) webgunean espreski prestatutako inprimakia bete eta parte hartuko duen taldearen aurkezpen bideoa bidaltzea (bideoaren esteka eskatuko da; bideoa aurretiaz plataforma digital batean argitaratu beharko da).
- Aurkezten diren **lehen 30 taldeek** izango dute lehiaketan parte hartzeko aukera.
- Aurkezpen bideoa, gehienez minutu batekoa eta **mp4 formatua** eta **1280 x 720px, gehienez 200 Mb-ko pisua** dutenak.
- Film laburrek originalak eta inoiz argitaratu gabeak izan behar dute;
  - Ez dira aurretik bestelako euskarri, lehiaketa edo jaialditan aurkeztutako lanak onartuko.
  - Ez dira lehiaketa honen aurretik egindako beste film labur baten bertsio laburtu edo luzatuak diren lanak onartuko.
  - Parte-hartzaileak Kameratoiak iraun bitartean (sari banaketa igaro arte) laburmetraia inongo euskarritan edota erakusketa publikoan ez argitaratu/erakusteko konpromezua hartzen du.

Aurretik aipatutako baldintza horiek beteko ez balira, filmea zuzenean lehiaketatik kanpo geldituko litzateke.

## DATAK

- Izen-ematea: **urriaren 7tik azaroaren 7ra** bitartean [www.kameratoia.eus](http://www.kameratoia.eus) webgunean.
- Formakuntza saioa: **azaroaren 9an**, arratsaldeko 16:30tan. parte-hartzaileek antzezpenerari buruzko ordubeteko masterclass berezi baterako sarbidea izango dute. Saioa ibilbide luzeko euskal aktore batek gidatuko du.
- Lehiaketaren hasiera: **azaroaren 12an, ostirala, arratsaldeko 20:00etan**, aurtengo GAIA iragarriko da eta hasiera emango zaio 2021eko Kameratoiari. Parte-hartzaileek **36 ordu** izango dituzte beren film laburrak burutzeko; hau da, gidoia idatzi, grabaketak egin, editatu eta lanak antolakuntzari entregatzeko.
- Lanen bidalketa: **azaroaren 14an, eguerdiko 12:00etan** bukatuko da parte-hartzaileek lanak entregatzeko epea. Lanak email bidez helarazi beharko zaizkio antolakuntzari.
- Publikoaren bozka: **azaroaren 15a eta 18a** bitartean laburmetraiak ikusgai izango dira [Kameratoia.eus](http://Kameratoia.eus) webgunean publikoak horietaz gozatu eta bere hautua egiteko aukera izan dezan.
- Sari banaketaren grabazioa: **azaroaren 19an** egingo da, arratsaldez eta on-line, eta lehiakideek bertan egon beharko dute.
- Sari banaketa: azaroaren 21ean izango da eta online formatuan izango da ikusgai [Kameratoia.eus](http://Kameratoia.eus) webgunean.

## LANEN BALDINTZAK

### ➤ GAIA ETA EZAUGARRIAK

Azaroaren 12an arratsaldeko 20:00etan iragarriko dira aurtengo lehiaketako gaia eta ezaugarriak.

### ➤ IRAUPENA

Film laburrek gehienez ere 3 minutu eta erdiko iraupena izango dute, kareta barne. Muga horren barruan, partaide bakoitzak iraupen egokiena aukeratuko du.

### ➤ HIZKUNTZA

Filmak euskara hutsean izan behar dute eta aurkeztutako lanean beste hizkuntzarik egongo balitz, euskarazko azpitoluak izan beharko ditu itsatsita. Bestelako hizkuntzen erabilera istorioan justifikatuta egon beharko da.

### ➤ FORMATUA ETA KARETAK

- Lanak mp4 1280 x 720px formatuan entregatuko dira eta ezingo dute gehienez ere 200 MBko pisua gainditu.

- Film laburrek Lekeitioko Zine Bileraren kareta izan behar dute txertatuta filmaren hasieran, pantaila osoan.
- Ezinbestekoa da kareta hori 3 segundutan zehar mantentzea bideoan. 3 segundu horiek ez dira filmearen iraupenaren parte izango.
- KARETA horiek Kameratoia.eus webgunean izango dira eskuragarri lehiaketa hasi orduko “Kareta jaitsi” atalean.

Filmeko edukiaren ordena, beraz, hauxe:

- Hasierako kareta– 3 segundo
- Laburmetraia – gehienez ere 3’5 minutukoa

## LANEN BIDALKETA

- Lanak bidaltzeko **epea azaroaren 14ean eguerdiko 12:00etan** bukatuko da.
- Laburmetraiak **wetransfer** bidez bidaliko dira [andoni@topagunea.eus](mailto:andoni@topagunea.eus) helbidera.
- Filmearekin batera, bidalketan laburreko **fotograma** baten irudia bidali beharko da JPG edo PNG formatuan, 420 x 623 pixeleko tamainan eta gehienez ere 1Mbko pisua gainditzen ez duena.

## LEHIAKETAREN DINAMIKA

1. Izen ematea: [kameratoia.eus](http://kameratoia.eus) webgunean

**Bete beharrekoak: inprimakia eta aurkezpen bideorako lotura**

Izen-ematearen konfirmazioa **azaroaren 8 eta 10a** bitartean gauzatuko da antolakuntzatik.

2. **Lehiaketaren azalpena**

[Kameratoia.eus](http://kameratoia.eus) webgunean lehiaketaren nondik-norakoei buruzko informazioa izango da ikusgai: oinarriak, dinamika eta epeak.

Filmeen gaia eta ezaugarriak lehiaketa hasten den momentuan bertan iragarriko dira: **azaroaren 12a , arratsaldeko 20:00etan.**

3. **Formakuntza saioa:**

Parte-hartzaileek IKUS-ENTZUNEZKO ANTZEZPENARI buruzko ordubeteko **masterclass berezi** baterako sarbidea izango dute lehiaketa hasi aurreko egunetan. Saioa ibilbide luzeko euskal aktore batek gidatuko du. Saioaren data izen-emateak konfirmatu orduko zehaztuko da.

4. **Lehiaketaren hasiera:** azaroaren 12an , ostirala, arratsaldeko 20:00etan, aurtengo lehiaketaren **GAIA eta EZAUGARRIAK** ezagutzera emango dira (filme guztietan ageri beharko direnak) zine bileraren eta Kameratoiaeren webguneetan eta hasiera emango zaio lehiaketari.
5. **Lanen bidalketa:** azaroaren 14an eguerdiko 12:00etan bukatuko da lanak entregatzeko epea.  
Entregatu beharrekoa: **bideoa kareta txertatuta + fotograma baten irudia**
6. **Balorazioak eta bozka:** azaroaren 15etik 18ra bitartean filme guztiak argitaratuko dira [kameratoia.eus](http://kameratoia.eus) webgunean eta publikoaren bozka aukera aktibatuko da.  
Era berean, epaileek ere lan guztiak jasoko dituzte balorazio lanaketak egiteko.
  
7. **Irabazleen ebazpena eta sari banaketa:** azaroaren 21ean izango da sari banaketa galaren emisioa [zinebilera.eus](http://zinebilera.eus) eta [kameratoia.eus](http://kameratoia.eus) webguneetan. Bertan, epaileek beren balorazioak emango dituzte ezagutzera eta 2021eko Kameratoiaeren irabazleak iragarriko dituzte. Publikoaren sariaren berri ere emango da.

## SARIAK

Bi sari nagusi izango dira eta publikoaren sari berezia: lehenengo biak epaileen balorazioen arabera izango dira eta hirugarrena berriz, webgunean publikoak ematen dituen bozken arabera.

- **1. saria:** 800€ko saria\* jasoko da eta filmea [Laburbira](http://Laburbira) zirkuituan eta [Demasa](http://Demasa) lehiaketan sailkatu izatera pasatuko da zuzenean.
- **2. saria:** 400€ko saria\* jasoko du eta [Demasa](http://Demasa) lehiaketan sailkatu izatera pasatuko da zuzenean.
- **Publikoaren saria:** talde irabazlearentzako (kide guztientzako) gau baterako egonaldia debalde Lekeitioko Trintxerpe aterpetxean.

(\*) dagokion atxikipena aplikatuko zaio.

## LANEN ARGITARATZEA WEBGUNEAN

Jaialdiaren antolakuntzak film laburrak oinarrietan adierazitako baldintzak betetzen dituztela egiaztatuko du eta hala balitz, onspen konfirmazio mezu bat helaraziko zaio taldeari. Hala ez balitz, lehiaketatik kanpo geldituko litzateke eta hala jakinaraziko zaio baita ere taldeari.

Antolakuntzak lehiaketan zehaztutako irizpide tekniko, artistiko eta /edo legalak betetzen ez dituzten lanak lehiaketatik kanpo uzteko eskubidea gordetzen du.

Era berean, antolakuntzak arrazista, berdintasunaren aurkakoa edo gustu txarrekoa den edo ikuslegoaren sentsibilitatea irain lezakeen gai zein irudirik duen edozein lan baliogabetzeko eskubidea gordetzen du.

## LEGE OHARRAK

- Parte hartzeek filmean ageri diren bestelako sormen lanen egile eskubideak urratzen ez direla bermatzen dute eta horiek erabiltzeko beharrezko baimen eta lagapenak dituztela.
- Antolakuntzak ez du lehiaketara aurkeztutako filme eta horien edukiaren gaineko legezko erantzukizunik izango.
- Filmegileek antolatzaileak baimentzen dituzte lehiaketak iraun bitartean, [kameratoia.eus](http://kameratoia.eus) eta [zinebilera.eus](http://zinebilera.eus) webguneetan, horiei lotutako sare sozial eta ikus-entzunezko bestelako plataformetan lanen zabalkunde eta argitarapena egiteko. Eskubide horien erabilera jaialdiaren promozio eta informazio helburuetarako izango da soilik.
- Sortzaileek lehiaketak iraun bitartean filmea bestelako gune edo euskarri batzuetan ez erakutsi / zabaltzeko konpromezua hartzen dute. Hala ez balitz, antolaketak lana zuzenean lehiaketatik kanpo uzteko eskubidea izango luke.
- Film laburraren ustiapen edo erabilera komertzialak egilearen alde aurreko eta berariazko baimena beharko du, hala badagokio, dagozkion akordioak sinatuz.
- Talde parte-hartzaileak epaimahaiaren erabakia argitaratu ondoren segituan jaialdiak bere film laburra erakusten jarraitzea nahi ez badu, antolakuntzan jakinarazi beharko du. Une horretatik aurrera, erakundeak 30 laneguneko epea izango du goian aipatu ditugun eskubideen eskualdaketa ez-esklusiboa baliogabetzeko.
- Lehiaketan izena ematearekin batera, talde parte-hartzaileek baimena ematen diote antolatzaileari lehiaketan partekaturiko informazio, irudi eta euskarri oro erabiltzeko, zuzenean edo zeharka, ikus-entzunezko lanen sustapen eta komunikazio ekintzak burutzeko.
- Antolatzaileek ez dute erantzukizunik izango haien esku ez dagoen kanpo zerbitzu baten hutsegite edo ez ohiko egoera batek eragindako galeretan.
- Oinarrien ulermenean zalantzarik balego, Euskaltzaleen Topaguneari dagokio erabakitzea. Era berean, zehaztutako puntuetan aldaketak egitea beharrezkoa izanez gero, antolatzaileek horiek egiteko eskubidea izango dute, baldin eta justifikatuta badaude eta / edo parte-hartzaileei kalterik egiten ez badie eta alde aurretik behar bezala jakinarazten baldin badira.

## OINARRIEN ONARPENA

Lehiaketa honetan parte hartzeak arau hauen erabateko onarpena dakar. Antolaketa Batzordeak bere gain hartzen du oinarri hauetan aipatzen ez diren salbuespeneko erabakiak hartzeko eskubidea.

Informazio gehiago jasotzeko edo edozein zalantza argitzeko, idatzi iezaguzu [barezi@topagunea.eus](mailto:barezi@topagunea.eus) helbidera.



# Kameratoia

Euskal Herriko  
Ikus-entzunezkoen  
Rallya

# Kameratoia



**43.**  
**EUSKAL**  
**ZINE**  
**BILERA**

